

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROL ETA OSASUN SAILA

Gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako 2023ko dirulaguntzak emateko deialdia arautuko duten berriazko oinarriak

2022ko abenduren 30ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako 2023ko dirulaguntzak emateko deialdia arautuko duten berriazko oinarriak.

Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 12.3 artikulua betetze aldera, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako 2023ko dirulaguntzak emateko deialdia arautuko duten berriazko oinarriak ALHAOn argitaratzeko agintzen da.

1. Dirulaguntzen ildoak

31. ildoak: Gaixotasun edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen eta horien senideei zuzenduta, 2023an gaixotasunen prebentzioaren eta osasunaren sustapenaren alorretan egiten diren sentsibilizazio-proiektuetarako dirulaguntzak.

2. Deialdiaren xedea

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitateen proiektuak laguntzea du xede, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuak egiteko, beti ere Vitoria-Gasteizko biztanleei zuzenduta badaude.

A programako proiektuak 2023an gauzatu behar dira, eta B programakoak 2023-2024 ikasturtean zehar.

Adikzioen arloko programa edo proiektuak ez dira deialdi honen xede.

Proiektuek alderdi hauek sustatu behar dituzte:

- Gaixotasunen prebentzioari eta osasunaren sustapenari buruz informatzea eta zabalkundea ematea.
- Gaixotasun edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen edo horien senideen bizi-kalitatea (osasun ikuspegitik) hobetzea.
- Osasun arazoaren arloko sentsibilizazioa, euskarria eta elkarrekiko laguntza.
- Eragindako pertsonak beren osasunean inplikatzeko.
- Ekitatea osasunean.

3. Baliabide ekonomikoak

Aldez aurreko tramitazioa izango dute oinarri hauek, azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Dirulaguntzen Araudi Orokorren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta, horrenbestez, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu egoki izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

Deialdi honetako laguntzak bi programatan banatuta daude; A programa, 2023ko ekitaldian gauzatzekoa, eta B programa, 2023-2024 ikasturtean gauzatzekoa. Biak Kirol eta Osasun Saileko Osasun Publikoaren Zerbitzuaren 2023 eta 2024 ekitaldiko aurrekontuetako 24.30.02.2315.48104 partidan – osasuna sustatzeko dirulaguntzak– jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira, gehienez ere 420.032,46 euro izango dira, honela banatuta urteka:

– 2023. urtea: 407.532,96 euro.

– 2024. urtea: 12.500,00 euro.

B programa 2023/2024 ikasturtean gauzatu da, eta 2023ko ekitaldiko kreditua izango du 2023ko irailetik abendura bitartean, eta 2024ko ekitaldiko kreditua, 2024ko urtarriletik ekainera bitartean.

A programa 2023ko ekitaldia: 399.660,89 euro.

B programa 20.371,57 euro, honela xehatuta:

2023ko ekitaldia: 7.871,57 euro.

2024ko ekitaldia: 12.500,00 euro.

Aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, proiektuak balioestearen ardura duen organoak programa batetik beste batera kreditua aldatzeko ahalmena izango du, betiere deialdi honetan onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

Era berean, 2023ko ekitaldirako hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura handitzen bada, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta ebazpena eman aurretik behar den gastu-dosierra izapidetu, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

4. Erakunde onuradunak

Arlo-sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakunde pribatuak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradun, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Beren estatutuetako helburuen artean berariatz aitortuta izatea osasuna sustatzeko edo elkartekideen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak egitea.

– Dirulaguntza eskatzen duten pertsonak edo entitateek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan beharko dute helbidea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren ekimenak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta.

– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoren batean ez egotea.

5. Dirulaguntzaren xede diren programa eta jarduerak

Deialdi honen harira diruz laguntzen diren programa eta jarduera guztiak jarraian adierazten diren programe-takoren baten barruan egin behar dira, eta A programaren kasuan 2023. urtean gauzatu beharko dira, eta B programaren kasuan, 2023-2024 ikasturtean zehar.

Erakundeak programa batera edo bietara aurkeztu ahalko dira. Bi programetara aurkeztzen diren erakundeek proiektu bat aurkeztu beharko dute A programarako eta beste bat, desberdina, B programarako.

Pertsona edo erakunde bakoitzak 47.000,00 euroko dirulaguntza eskatu ahal izango du gehienez A programan, eta 10.000 eurokoa B programan.

A programa.

Izaera sanitarioko programak, patologia kronikoak edo gaixotasun arraroak dituzten pertsonei arreta eta errehabilitazioa emateko prozesuan jarduerak egiteko, kaltetuen familientzako zerbitzuak egiteko eta herritar guztiei edo talde espezifikoiei zuzenduta dauden gaixotasun kronikoen zabalkunde-eta sentsibilizazio-proiektuak egiteko.

Jarduera hauek lagunduko dira:

- Gaixotasunaren inguruko aholkularitza eta informazioa.
- Arreta podologikoa.
- Errehabilitazio logopedikoa.
- Errehabilitazio fisioterapeutikoa.
- Errehabilitazio kognitiboa.
- Laguntza psikologikoa.
- Terapia okupazionala.
- Autolaguntzarako taldeak.
- Eragindako pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan-saio eta lantegiak.
- Gaixotasunaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-jardunaldiak Gaixotasun jakin bati buruzko munduko eguna, biltzarrak, gaixotasun horri buruzko informazio-standak, etab.
- Delako gaixotasunarekin lotutako publizitate-kanpainak.
- Gaixotasunari zabalkundea ematea edo horren inguruan sentsibilizatzea xede duten bes-telako jarduerak.

Programak barne hartzen ditu erakundeak eskatzaileei emandako aholkularitza eta arreta (aurrez aurrekoa edo telefonoz), sare sozialak...

B programa.

Vitoria-Gasteiz hiri hezitzaileko ikastetxeetan osasuna sustatzeko programak, 2023ko iraila-ren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean.

Jarduera hauek lagunduko dira:

- Gizartea gaixotasunei buruz edo gaixotasunak eragindako estigma soziala murrizteari buruz sentsibilizatzeko programak.
- Osasunaren sustapenarekin eta gaixotasunaren prebentzioarekin lotutako programak.

Programa honetan diruz lagundu ezin diren jarduerak.

- Ez dira diruz lagunduko Vitoria-Gasteizko Udalaren zerbitzuek antolatutako "Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea" programaren barruan eskaintzen diren jardueren antzekoak diren proiektu edo jarduerak.

6. Diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak

Oro har, ez dira diruz lagunduko antolakuntzako aperitibo, gosari, catering, bazkari edo afariak (ezta antola-tzaileek parte-hartzaileei emandakoak ere), ezta jardueretan emandako opariak ere. Salbuespen gisa, horrelako gastuak onartuko dira, horien beharra arrazoitu eta justifikatzen bada.

Era berean, ez dira diruz lagunduko entitateetako profesioen prestakuntzara zuzenduriko ikastaroak, ibilge-tuan egindako inbertsioak, hala nola altzariak, instalazioak, ekipamendu tekniko, informatikoa edo ikus-entzunezkoa, ibilgailuak eta abar, salbu eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote, behar-beharrezkoak badira eta ezarritako epean egiten badira.

Baldin eta aurkezten den aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, kendu egingo dira aurkeztutako aurrekontutik.

7. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea eta/edo erakunde onuradunari lotutako langileekin gauzatzea

Entitate onuradunak partzialki azpikontratatu ahalko du diruz lagundutako jarduera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutako terminoetan.

Era berean, aipatutako 29. artikuluen 7. puntuan xedatutakoaren ildotik, erakunde onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin hitzartu ahal izango du onuradunak jarduera gauzatzea, aldez aurretik dirulaguntza eman dion organoaren baimena eskuratzen bada eta kontratazioa merkatu baldintzen arabera egiten bada.

Horregatik, elkartearekin lotura duten pertsonen izenean egindako ordainagiriak, fakturak eta nominak onartu ahal izateko, III-S eranskina (azpikontratazioarako baimen-eskaera) eta agiri guztiak aurkeztu behar dira, eta Osasun Publikoaren Zerbitzuaren berariazko baimena eskuratu. Ez da epez kanpo egindako azpikontratazio-eskaerarik onartuko.

Hasierako proiektuak birformulatzen badira, azpikontratazio-ehunekoaren aldaketak onartuko dira, baldin eta tarte berean mantentzen badira. Horretarako, azpikontratazioarako beste baimen-eskaera bat aurkeztu beharko da, III-S eranskina betez. Ezarritako tarteak, proiektuaren aurrekontu osoari dagozkionak, honako hauek dira:

- Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 25,00 arte.
- Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 25,01etik ehuneko 50,00era arte.
- Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 50,01etik ehuneko 75,00era arte.
- Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 75,01etik ehuneko 100,00era arte.

Emandako dirulaguntzaren justifikaziotik ondorioztatzen bada baimendu gabeko azpikontratatorik egin izan dela, edo azpikontratazioaren ehunekoa baimendutakoa baino handiagoa izan dela, erakundeak horri dagokion zenbatekoa itzuli beharko du.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa eta hura elkartearekin lotura duten pertsona edo erakundeekin gauzatzea baimentzeko eskumena.

8. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun balioudunekoa izango da, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik. Larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuak ez dira laneguntzat hartuko.

Eskabideak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorretako 5. puntuan (“agiriak aurkezteko bideak”) ezarritakoaren arabera aurkeztu beharko dira.

Aukeran, dokumentazioa egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, digitalki sinatua izan dadin <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>.

Ezin bada, herritarrei laguntzeko bulegoren batean aurkeztuko da, bertan erregistra dezaten, eta dokumentazio guztia formatu digitalean eraman beharko da pendrive, USB, edo antzeko euskarriren batean.

Herritarrei laguntzeko bulegoko langileek dokumentuak erregistratuko dituzte, eta euskarri digitala itzuliko diote interesdunari.

Eskaera egiteko unean, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, berezita: 7 artxibo pdf formatuan, eta beste bat kalkulu-orri formatuan:

1. I-S eranskina (Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria), 2023ko dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorretako ereduaren arabera, zein udalaren helbidean baitago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntza.

2. Entitatearen estatutuen eta identifikazio fiskalerako txartelaren kopia bana, baldin eta Kirol eta Osasun Sailaren deialdi batean parte hartzen duen lehenengo aldia bada, edo (beste deialdiaren batean aurkeztu bada) estatuek aldaketaren bat izan badute aurkeztu ziren azken alditik.

3. Eskatzailearen ordezkariaren egiaztapena eta elkarte eskatzailearen legezko ordezkariaren NAN edo AIZaren kopia.

4. Banketxearen egiaztagiria, kontu-zenbakia eta titularraren izena agertzen dituen —elkar-teak berak izan beharko du titular—.

5. II-S eranskina (erakundearen ordezkari legalaren erantzukizunpeko adierazpena), eskabidea aurkeztu den egunean erakundeak zenbat bazkide dituen adieraziz.

6. III-S eranskina: erakunde onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak azpikontratatzeko baimen-eskabidea, halakorik egitekoa bada.

7. Programa-proiektua eta jarduerak:

Erakunde eskatzaileak proiektu osoa aurkeztu beharko du, propio egindako dokumentu batean, gehienez 40 orrialdean, non proiektuko jarduera guztiak zein horietako bakoitzerako aurreikusitako aurrekontua zehaztu beharko baita, dirulaguntzarik eskatzen ez dutenak barne, proiektu osoa baloratuko baita.

Argi eta garbi adierazi behar da zer jardueratarako eskatzen den Osasun Publikoaren Zerbitzuaren dirulaguntza, bai eta dirulaguntzen deialdi honi zer gastu egotziko zaizkion ere.

Aurkeztutako proiektuak jarraian adierazitako atalak izan behar ditu, ezarritako hurrenkeran. Halaber, eskatzaileak proiektua hobeto baloratzeko egokitzat jotzen duen beste edozein informazio edo agiri aurkeztu ahalko du.

Pertsonen buruzko datuak, ahal dela, sexuaren/generoaren (emakumea/gizona/ez bitarra) arabera bereizita aurkeztu beharko dira, bai aurkeztutako proiektuan, bai ondorengo justifikazioan ere.

7.1. Entitatearen ibilbidea.

Entitatearen ezaugarriak: fundazio-urtea, Vitoria-Gasteizko bazkideen eta boluntarioen kopurua; entitateak izan duen ibilbidearen laburpena: zenbat urte daramatzen lanean, egindako proiektu garrantzitsuak, zein entitatearekin lan egin duen, zein forotan parte hartu duen, entitatea antolatzeko eta kudeatzeko moduak (langileak, ekipamendua, zereginen banaketa).

7.2 Helburuak eta justifikazioa.

- Proiektu osoaren oinarriak.
- Helburu orokor nahiz berariazkoen formulazioa.

7.3 Proiektu osoaren jarduerak eta ekintzak, jarduera bakoitzerako honako atal hauek zehaztuta:

— Jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza, honako hauek zehaztuta: proposatutako ekintzen aurreikusitako kopurua, edukiak, metodologia, dinamikak, hizkuntza, jarduera emateko gehieneko gela kopurua eta saioen kopurua (B programaren kasuan), etab.

- Gauzatzeko epea eta egutegia, ahal dela, kronograma batean adierazirik.
- Lankidetzaren beste erakundeak batzuekin.
- Osasunean ekitatea sustatzeko neurriak.
- Hartzailak eta jardueraren onuradun izan daitezkeen pertsonen kopurua.

7.3.1 Jarduerari atxikitako langileak.

Argi eta garbi adierazi beharko dira langileen kopurua, profila, eginkizunak, dedikazioa eta abar, ordaindutako langileak, zuzenean eta zeharka kontratatutakoak eta boluntarioak eta/edo laguntzaileak bereizita.

7.3.2 Baliabide materialak.

Jarduera egiteko behar diren baliabide materialak adierazi behar dira, hala nola informatika tresneria, bulegoko materiala, ikus-entzunezko materiala, ibilgailuak eta abar.

7.3.3 Espazioak eta instalazioak.

Zehaztu jarduera egiteko behar diren espazio- edo instalazio-beharrak.

Adierazi egin behar da zein udal espazio publikotarako eskatzen den tasa-hobaria edo tasatik salbuestea, data adierazita (7.11 ordenantza fiskala).

Proiektua garatzen ari delarik hasiera batean aurreikusita ez zegoen espazioren bat erabil-tzeko beharra sortzen bada, diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiteaz arduratzen den teknikariari jakinarazi beharko dio erakundeak, eta hark kudeatuko eta jakinaraziko dio dagokion gizarte etxeko koordinatzaileari.

7.3.4 Jarduera ezagutarazteko baliabideak eta egintzak.

Adierazi jarduerari zabalkundea emateko erabiliko diren bitarteko, euskarri, kanal eta ekintzak Osasun Publikoaren Zerbitzuak jarduera hedatzen laguntzea nahi bada, atal bat gehitu beharko zioa proiektuari, non berariaz adierazi beharko baita hori.

7.3.5 Jardueraren ebaluazioa.

Ebaluazio-metodologia zein erregistratuko diren adierazleak, eta proposatutako helburuak bete diren ala ez baloratzeko erabiliko diren irizpideak.

7.4. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua.

Jarduera bakoitzeko sarrera eta gastuen banaketa xehatua jaso behar du, IV-S eranskinarekin sarrera eta gastuen aurrekontua bat. Dokumentu hori, pdf formatuan aurkeztutako proiektuaren parte izateaz gain, bereizita ere aurkeztuko da, kalkulu-orri batean.

7.5. Eskatzaileak programa edo jarduera hobeto balioesteko egokitzen jotzen duen beste edozein agiri.

9. Balioespen-irizpideak

A programan kontuan hartuko diren alderdiak.

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurre-kontuaren xe-hetasun eta koherentzia, gehienez 20 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 10 puntu.

Finantzetaren definizioa eta banaketa, gehienez 10 puntu.

Bideragarritasun ekonomikoa balioesten duen irizpidean 12 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko orduan.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 30 puntu. Jardueraren ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratzeko dira, honakoei jarraiki:

Proiektuaren justifikazioa: Koherentzia eta egokitasuna, gehienez 4 puntu.

Proiektuaren definizioa, antolakuntza eta kudeaketa, gehienez 18 puntu.

Proiektua ebaluatzeko metodoa eta tresnak, gehienez 8 puntu.

Bideragarritasun teknikaren irizpidean 20 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan har-tuko dirulaguntza emateko orduan.

3. Proiektuaren onura sozio-sanataria, gehienez 50 puntu. Honakoak baloratuko dira:

Aurreikusten den onuradun kopurua, gehienez 5 puntu.

Jardueren publizitatea eta zabalkundea, gehienez 5 puntu.

Boluntarioen parte-hartze aktiboa, gehienez 4 puntu.

Eragindakoen eta horien familien inplikazioa, gehienez 5 puntu.

Herritarrak, oro har, sentsibilizatu eta informatzea, gehienez 7 puntu.

Eragindakoek gaixotasunean aktiboki parte hartzea sustatzea, gehienez 7 puntu.

Beste erakunde batzuekiko sinergiak sustatzea, gehienez 7 puntu.

Proiektuan ekitate-neurriak, gehienez 10 puntu.

B programan kontuan hartuko diren alderdiak.

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurrekontuaren xehetasun eta koherentzia, gehienez 20 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 10 puntu.

Finantza-ketaren definizioa, banaketa eta azpikontratazioa, gehienez 10 puntu.

Bideragarritasun ekonomikoa balioesten duen irizpidean 12 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko orduan.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 44 puntu. Jardueraren ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratuko dira, honakoei jarraiki:

Oinarri teorikoak gehienez 4 puntu.

Hartzaileak, programa bakoitzeko saio-kopurua, gehieneko programa kopurua, eman beharreko edukiak, metodologia eta dinamikak, irakasteko hizkuntza edo hizkuntzak, erabilitako material didaktikoa eta baliabideak gehienez 40 puntu.

Bideragarritasun teknikaren irizpidean 27 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuak ez dira kontuan hartuko dirulaguntza emateko orduan.

3. Prestakuntzaren balorazioa, gehienez 36 puntu. Honakoak baloratuko dira:

Prestakuntza jasoko duten ikasgela-kopuru aurreikusia, gehienez 4 puntu.

Ikasleen parte artesa, gehienez 2,5 puntu.

Irakasleen parte artesa, gehienez 2,5 puntu.

Dena delako estigmaren aurkako sentsibilizazioa edo osasuna prebenitzeko edo sustatzeko programa bultzatzen du, gehienez 5 puntu.

Ebaluazio-metodoa. Ebaluazio-tresnak. Adierazleak, gehienez 7 puntu.

Ikaskuntzaren ebaluazioa eta hartzaileen gogobetetze-maila, gehienez 9 puntu.

Prestakuntzaren egokitasuna eta Osasun Publikoaren Zerbitzuko helburuekin bat egitea, gehienez 6 puntu.

10. Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko

Proiektu bakoitzak, gehienez, 100 puntu eskuratu ahalko ditu.

A programan 47.000 eurokoa izango da gehieneko laguntza proiektu bakoitzeko, eta 10.000 eurokoa B programan.

Deialdiaren baldintzak eta irizpideak bete dituzten proiektuetako bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako eta balioetsitako eskaerak alderatuko dira, eta, hala, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

Aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa era proportzionalen banatu da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera.

Dena den, dirulaguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako proiektuaren kostu osoa baino handiagoa izan.

Dirulaguntzan aurreikusitako zenbatekoa aurkeztutako eskabidekoa baino txikiagoa bada, eskabidea birformulatzeko eskatu ahalko zaio eskatzaileari, oinarri orokorretako 10. puntuan zehaztutakoari jarraiki.

11. Zeharkako gastuak

Zeharkako kostuak edo gastu orokorrak onartuko dira, dirulaguntza gisa emandako zenbatekoaren ehuneko 6raino. Halakotzat joko dira diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egotzekoak ez izan arren hura egiteko beharrezko direnak, esate baterako, entitatearen beraren mantentze-gastuak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza).

Kostu horiek ez dira agiri bidez justifikatu beharko, baina ohiko justifikazio-kontuko "sarrera eta gastuen ba-lantzea" atalean adierazi beharko dira.

12. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Deialdi honen baitan eskura daitekeen dirulaguntza bateragarri izango da beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin ematen dituen laguntzekin, laguntzen zenbateko guztiak proiektuaren aurrekontua gainditzen ez badu. Horretarako, eskatzaileek proiektu honetarako eskatutako eta lortutako laguntza guztiak aitortu beharko dituzte.

13. Dirulaguntza emateko prozedura

Elkarren arteko lehia baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura gisa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntza-deialdien oinarri orokorrekin bat.

Horretarako, kide anitzeko organo bat eratuko da, eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko proposamenak egiteko eskumena izango duena. Osasun Publikoa Zerbitzuko teknikariek osatuko dute organo hori. Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria izango da organo instrukzio-egilea. Hark ofizioz egingo ditu dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

ALHAOren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Oinarri hauetan berariaz aurrekusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

14. Dirulaguntza ordaintzea

Honela banatuko da dirulaguntzaren ordainketa:

A programan, 2 zatitan ordainduta:

— Laguntzaren ehuneko 80 dirulaguntza ematen den unean ordainduko da banku-transferentzia bidez, dirulaguntzaren aurrerapen gisa.

— Gainerako ehuneko 20a justifikazioa bidali eta onartzearen mende egongo da.

B programan, 3 zatitan ordainduta:

— 2023ko aurrekontuan kontsignatutako zenbateko osoa dirulaguntza ematen den unean ordainduko da banku-transferentzia bidez, dirulaguntzaren aurrerapen gisa.

— Gainerako zenbatekoa, emandako dirulaguntza osoaren ehuneko 80raino, 2024rako aurrekontua behin betiko onartu ondoren.

— Gainerako ehuneko 20a justifikazioa bidali eta onartzearen mende egongo da.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta pertsona edo entitate onuradunak:

- Udalak lehendik emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu.
- Aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.
- Zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta ez baditu, eta dirua itzultzea bidezkoa dela ebatzi delarik zordun bada.

15. Dirulaguntza justifikatzea

2023. urterako Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera justifikatu behar da.

Emandako dirulaguntza justifikatzen ez bada, edo nahikoa justifikatzen ez bada, itzuli egin beharko da ordaindu den arren justifikatu ez den zenbatekoa.

Bi hilabeteko epean justifikatu beharko dira dirulaguntzak, programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta, edo ematen denetik aurrera kontatuta, gauzatu ondoren emandakoa bada.

Egindako proiektuaren oroitidazkia eta oroitidazki ekonomikoa bildu beharko ditu justifikatzeko dokumentazioak.

15.1. Proiektuaren oroitidazki deskriptiboa.

– Jardueraren garapenari buruzko memoria deskripiboa eta grafikoa, deialdi honetako balorazio-irizpideak justifikatzeko oinarri gisa balio duten xehetasun guztiekin.

– Euskararen erabileraren jarraipena. Horretarako, "Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa" aurkez-tuko da. Fitxa hori erakunde onuradunen eskura dago udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

– pdf formatuan edo antzekoan aurkeztuko dira jarduera garatzeko prestatutako esku-programa, kartel, argitalpen, txartel, prentsa-klip zein -ohar, web-argitalpen eta beste edonolako argitalpenak oro.

– Txosten bat aurkeztuko da, non aurkeztuko baitira erabilitako irudiak, bai eta marka instituzionalak eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzaren zabalkunde- eta publizitate-ekintzak ikusgai egon diren euskarrien zerrenda.

15.2. Oroitidazki ekonomikoa.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, udalaren webgunean eskuragarri dagoen ohiko justifikazio-kontua betez.

Ez dira aurkeztu beharko udalak diruz lagundutako gastu guztien fakturak eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak (banketxeak egindakoak) baino, zeharkako gastuei dagozkienak izan ezik.

Legez eskatzen diren datu guztiak jasotzen dituzten fakturak baino ez dira onartuko (faktura-zenbakia, jaulkipen-data, izen-abizenak, izen sozial osoa, zerga-administrazioak emandako identifikazio fiskalerako zenbakia, eragiketen deskribapena, BEZ edo bestelako zerga-tasak).

16. Informazioa eta aholkularitza

Osasun Publikoaren Zerbitzuak saludpublica@vitoria-gasteiz.org helbidearen bidez emango die informazioa eta aholkuak interesdunei.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 22an

Osasun Publikoaren Zerbitzuko burua
ANA BAZTERRICA MANCEBO



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de Subvención y Ayuda Económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

ESKATZAILEAREN DATUAK - DATOS DEL/LA SOLICITANTE

Izen-abizenak / Enpresaren izena - Nombre y apellidos / Razón social NAN/IFZ/AIZ – IFZ/NIF/NIE

ADMINISTRATIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK - DATOS DEL REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

Lehen deitura - Primer apellido Bigarren deitura - Segundo apellido Izena / Enpresaren izena – Nombre / Razón Social

NAN/AIZ – DNI/ NIE Posta elektronikoa - Correo electrónico

Helbidea (kalea, ataria, eskailera, solairua eta atea) - Dirección (calle, nº, escalera, piso y letra)

PK - C.P. Herria - Localidad Lurraldea - Provincia Tel. - Tfno.

ESKATZAILEAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA SOLICITANTE

Finantza-erakundea IBAN F. E. kodea Bulegoa K.Z. Kontu-zenbakia
Entidad financiera Código E.F. Sucursal D.C. Número de cuenta

LAGUNTZA EKONOMIKO EDO DIRU-LAGUNTZA ESKATZEN DU ALOR HONETAN :

SOLICITA AYUDA ECONÓMICA, SUBVENCIÓN DE:

Gazteria	<input type="checkbox"/>	Kirola	<input type="checkbox"/>	Juventud	<input type="checkbox"/>	Deporte	<input type="checkbox"/>
Berdintasuna	<input type="checkbox"/>	Gizarte Politikak	<input type="checkbox"/>	Igualdad	<input type="checkbox"/>	Políticas Sociales	<input type="checkbox"/>
Garapenean Laguntzea	<input type="checkbox"/>	Herritarren Partaidetza	<input type="checkbox"/>	Cooperación al desarrollo	<input type="checkbox"/>	Participación Ciudadana	<input type="checkbox"/>
Euskara	<input type="checkbox"/>	Merkataritza - Ostalaritza	<input type="checkbox"/>	Euskera	<input type="checkbox"/>	Comercio - Hostelería	<input type="checkbox"/>
Bizikidetzeta eta aniztasuna	<input type="checkbox"/>	Enpresak	<input type="checkbox"/>	Convivencia y Diversidad	<input type="checkbox"/>	Empresas	<input type="checkbox"/>
Kultura	<input type="checkbox"/>	Enplegua - Kontratazioa	<input type="checkbox"/>	Cultura	<input type="checkbox"/>	Empleo - Contratación	<input type="checkbox"/>
Hezkuntza	<input type="checkbox"/>	Nekazaritza Eremua	<input type="checkbox"/>	Educación	<input type="checkbox"/>	Zona Rural	<input type="checkbox"/>
Osasun Publikoa	<input type="checkbox"/>			Salud Pública	<input type="checkbox"/>		

DIRU-LAGUNTZEN ILDO HONEN BARRUAN - CORRESPONDIENTEA LA LINEA DE SUBVENCIÓN DE:

ESKATUTAKO DIRU KOPURUA – IMPORTE SOLICITADO

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU:

Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.



www.vitoria-gasteiz.org

Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria

Solicitud de subvención y ayuda económica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

informacion@vitoria-gasteiz.org

Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrak betetzen dituela.

Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO: Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera. Adierazi hemen

AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ: Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41. Marque aquí

Diru-laguntzen Udal Ordenantzaren 6.2 artikuluekin bat etorri, **Udalak ofizioz kontsultatuko ditu eskatzaileen nortasun-datuak, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez**

De conformidad con el artículo 6.2 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, **el Ayuntamiento consultará de oficio los datos de identidad de las personas solicitantes a través de la Dirección General de la Policía.**

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 d) artikuluen, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikuluen eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluen arabera, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.**

